

# 7. Gertakizun bereziak



## 7.1

Mende hasierako herriko Korporazioa: Pedro Egia (konzejal), Ruperto Bernaola (alkate), don Santiago Bernaola, Jose Ramon Ugalde (teniente alkatea, txuxoagaz) eta Miguel Ordeñana (sakristaua eta konzejala). Argazkia 1916 aldekoa izan leiteke eta errota aurrean egina da.


Pedro Egia bere izan zan alkate baina Primo de Riveraren diktadura garaian (1922-1926). Don Santiago Rupertoren anaia zan eta Olarren bizi zan bere arraba Zeledonia eta Doloresegaz. Beste anaia bi izan ebezan, don Juan (koadjutore Bilboko Santiagon) eta Jose Mari, Torrean bizi zana. Don Santiago izan zan kanposantu barria egiten agindu ebana, Miguel Ordeñana eta sendia herriko tabernan bizi zirean garai haretan.



7.2

---

Pedro Ipiña Beaskoetxea, *morenito de Sestao* zekorkaria, Arantzazugoitin 1903-XII-5ean jaioa. Bere lenengo agerraldia 1926-III-4koa da eta urte honetan eta hurrengoan 28 zezenketatan hartu eban parte: 44 zezenen aurrean jarri eta 27 belarri ebagi ebazan.



## 7.3

---

1931ko maiatzaren 31n, hauteskundeak izan genduzan Arantzazun emaitzak honakook izan zirala: 5 zinegotzi EAJak, zinegotzi 1 karlista, alkate Gerbasio Uria (EAJ). Argazkian hauteskunde hareetatik sortu zan Korporazinoa ikusi daikegu. Ezker-eskoira: 1. Gregorio Barrenetxea *Txabal*, alguazila; 2. Juan Migel Yurrebaso *Txori*, jueza; 3. Gerbasio Uria *Kartutxo*, alkatea; 4. Gregorio Etxezarraga *Buzterri* (atzean); 5. Pedro Artetxe, alkateordea (txikia); 6. Klemente Yurrebaso *Kele*; 7. Pedro Ipiña; 8. Jose Iturrino.



## 7.4

1936-VII-17an Gerra Zibilak eztanda egiten dau Melillan eta hiru urtetan zehar Espainia osoan zabaldu zan. Altxatuen aurka borrokatzeko Arratian "Arratia Konpainia" sortzen da, EAJan afiliatutako gazteez osatutako konpainia. Arteako seminarioan hartzen eben euren instrukzinoa eta 1936-X-4an Elgetako frentera bialdu ebezan. Zemendiaren amaierarako (dagoeneko Ibaizabal bataloiaren osatzaile) Legutianora eroan ebezan. Gabonetan etxera etorri zirean permisoagaz eta argazkia Igorren 1937-I-6an ospatu zan jaiari egindakoa da: bertan meza entzun eta Arratiako alkate eta agintariakaz batera bazkari bat egin eben. Ospakizunak amaitu eta gerrarako deiari barriro erantzun behar izan eutsen.

Arantzazutarrak bere izan genduzan konpainian: Lontzo Artetxe, Alfonso Ordeñana, Manuel Artetxe (tenientea zan), Pedro Ipiña (tenientea hau bere), Eujenio Ipiña, Justo Ordeñana, Agustin Manzarraga eta Gregorio Etxezarraga, besteak beste.



## 7.5

---

Argazki hau gerra garaikoa (1936koa) da, Londresen egina. Ezker-eskora, Nieves, Mari Uriarte eta Begoña (gizonan izena ezezaguna da). Urte haretan, La Habana barkua bete exiliatuk hartu eban Santurtzin Inglaterararako bidea. Mari bere neba-arrebakaz joan zan eta amak erreklamau ebazanean (10 bat hilabete beranduago, aita Igorren bonba baten eraginez hil barria zala) barrero bueltau zirean. Mari eta bere aizta (nebea beste nonbaiten izan zan) Londreseko komentu batean izan zirean eta argazkia izaten ebezan eskursiñoetako batean egina da.



7.6

---

1948-V-22an, Begoñako Amabirjiña ekarri zan Arratian zehar proze-  
siñoan. Argazkia Arantzazun egin eban atsedenaldiarena da, eleizan.  
Argazkian ikusi leitekenez, bertako Amabirjiña altaran egoan,  
eskoian, eta pulpitua bere hor egoan oraindik.





## 7.7

---

1948-V-22an Begoñako Amabirjiñea etorri zanean egin zan argazkia; bertan herriko andra-gizonak, Amabirjiñea andatan eroaten eta prozesiñoan lagunduten. Zuriz jantzitako aurreko neska biak M.<sup>a</sup> Karmen Iturrino eta Miren Atutxa dira. Mirenen ondoan dagoena, Idurietakoa Bilbao Sagarminaga aiztetako bat. Mirenen atzean dagoena, Jabier Landajo. Andari Pedro Uria (bere ondoan, Jose Etxebarria) eta Simon Totorika (honen ondoan doana, Elias Arza). Atzean, andari, Kandido Iturrino; atzeratxoago, don Mateo abadea; honen eskoian, Pedro Rezagorri; don Mateon atzean, Justo Atutxa; honen ondoan, herriaren sekretario egoan don Jesus.



7.8

---

1950-XI-31n ezkondu zirean Arantzazun Azpuruko Jesusa Etxebarria ea Austietako Juan Etxebarria. Egun bizi diran etxera ezkonduko dira eta argazkia, bost bat egun lenagokoa, Azpurutik egin zan arreoarena da. Lau bei-buzterri izan zirean: Urubikoa eta Argiñako Tomas Artaraz, Toribio Bilbao eta Pedro Goikoetxearenak.





## 7.9

---

Herriko iturriaren inaugurazio egunean egin zan argazkia, 1956 aldera. Bertan, besteak beste, hurrengook ikusi geinkez: Franzisko Etxebarria, orduan alkate zana; bere ondoan, Galdakaon alkate egoan Braulio Ibarretxe; abadea, don Agustin Errasti, Arteakoa; monagilloa, Serafin Ureta; atzean, herriko zenbait lagun (Agustin Uria, e.a.)



7.10

---

Urtero legez, aurten bere (1965 aldera) heldu jakuz San Antonioak eta tabernan, Patxi Etxebarria, Antonio Rezagorri eta koadrilla dagoala, badiño Antoniok: *"Etxekoat nok eroan eta aurten be Urkiolara yoan barik gelditu bear yoat ba"*. Eta Patxik orduan: *"1000 erreal pagetan badostezak neuk eroango deuat"*. Eta esan eta egin, han hasi zirean idiak buztetu eta preparatibo guztian egiten. Argazkian, Patxi Etxebarria, Jose Kruz Arteta (Bekotxeko ugazaba, orduan Madrazonean posadaz egoana) eta Antonio Rezagorri (burdi ganean, botatik edaten). Bidaia Torrea parean edo amaitu zan.